

IRAULTZA HELETAN

Errepublikarentzat hil behorrari

**Xipri Arbelbide,
Etor argitaletxea, Donostia, 1993**

Frantses Estatuan, eta hortik at ere hainbat tokitan, 1989ko urtea Frantziako iraultzaren aipamenak egiten igaroa da. Zer gisatan egin izan da? Aurkezten dugun autoreak bere obran dioenez: "Argi guziak erakutsi dituzte. Itzalak ahantzi". Are oraino beste dimentsio hau ere azpimarratzen du: "Aipatu duten hura ere Parisetik egin izan da. Baina nola bizi izan dute gure herrietako Euskaldunek?". Pasarte hauekin, aski mugaturik uzten zaigu obraren eginkizuna eta kolorea.

Egia da Frantses iraultza bezalako gai batez makro-planteamenduak egitea zilegi dela, zeren berak proposaturiko balore-sistemak hedadura unibertsalaren bokazioa izan baitu. Horrelakotzak ezaguturik berrehun urtez filosofoei, historigileei, soziologoei, juristei eta teologoei hainbat tinta gastarazi die Estatu-eredu berriaren razionalitateak. Hegelengandik berarengandik hasi eta Marx, Durkheim eta gaineratikoetatik igaroaz gure egunak arte hainbat lan eredugarri inspiratu izan du. Iraultzak Antzinako Erregimenaren interes partikularren printzipiozko jokabideari interes orokorraren legearekin erantzun ziola erakutsi izan zaigu, nahiz eta Marx-en kasuan bezala interes orokor horretan interes pribatuak

gorderik irauten zutela salatu. Balore-sistema, errepresentazio sozial, eta ideologi alorreko eztabaida unibertsalista horiek, ezpairik gabe, garrantzi handia dute mundu-mailako sistema-proiektuaz arduraturik, sistema bakarren ideiak liluratzen dituen handi-mandientzat. Baina, historikoki eite originaleko gizarte izanik, beste guzien artean eta haiekin harremandurik, bere ibilbidea egiten jarraitzeko beste pretentsiorik ez duen Herriarentzat, interes orokor horren pean asimilazio behartzailearen justifikazioa ez ote da adierazten? Beste gisa batean galdera eginez, Frantses iraultza askatasun-eragile izan ote da Euskal Herriko sistemarentzat?

Autoreak, Heleta herria hartu digu aztergai, bere historia bi partetan bananduz. Batetik, Heleta Iraultza aitzin nola bizi zen agertzen zaigu. Bestetik, zer bilakatu zen Iraultza denboran.

Le Roy Ladurie famatuak, "Montaillou, village occitan de 1294-1324" obran arrakasta handinez erabilitako azterketa eta esposizio metodoa dager, hots, historikoa eta etnografikoa alde berean. Honela sintesi erraldoietatik at, behatze zuzenez, bitartekorik gabeko lekukotasunak atzematen dira. Gai-

nera, aipatu liburuari autore berak eginiko hitzaurrean aireatzen den printzipioa, hots, "toute étude historique doit ou devrait commencer par une crique des sources" (azterketa historiko oro erabiltzen diren lekukotasunen iturrien kritika eginez hasi behar da edo litzateke) hitzez hitz betetzen da "Iraultza Heletan" obran.

Hara nola egina izan den lekukotasun-iturrien aurkezpena. "Heletako herriko etxean, kontseiluaren bilkuren berri ematen digun lehen kaier edo koaderno, 1782an hasten da. 49garren orrialdearekin. Beste bat ere bazitekeen beraz, galdua izan dena. Kaier horrek asko eta asko erraiten digu herrian pasatu denaz. Ez ditu gauza guziak aipatzen baina aski, orduko giroaren berri jakiteko. Badira ere bi kaier iraultza denborakoak eta gero, denak baditugu segidan orain arte. Lehen biak ditugu gehienik baliatu, baina ere apur bat, ondoko hiruak Iraultza eta Napoleon pasatu eta 20 urteren buruan jakiten baitugu oraino Iraultzako berri... Bestalde eskutan ukan ditugu ere, 40 bat urte lehenago hasi ziren merkatu eta feriak sortzeko idatzi paper ofizial batzu, bai eta Duvoisin kapitainak, bere kaierretarik batetan, Santa Mariako jaunen artxiboetaz egin duen laburpena. Baionako Bibliotekan dira Duvoisinen kaierrak: BMB ms 461 markatuak dira. Santa Mariako jaunak ziren Heletako handienak eta idatzi horiei esker Heletaren berri jakiten dugu... Azkenik, orduko notarioen paper-andana bat ere irakurtu dugu, parte, Pouper Kanboar jaunak eta Lassus Getariarrak prestaturik..."

Bistan da, aipatu dokumentuen aberastasuna-aberastasun Iraultza garaian Heletan zegoen egunero biziaren berri labur bat besterik ez zaigula ailegatu. Jende arruntaren eguneko arrenkurak, ametsak, esanmesak, balore-munduaren konposizio desberdinak etabar ez zaizkigu inondik ere heldu edo guti besterik heldu. Baina, historiagilearen egitekoa da daukan dokumentazio-ziur horretatik partituz ez daukana konposatzearen eginkizuna. Azken funtsean, historia garaikidea egiten duenak ere gauza berbera egin behar izaten du, hots, aberatsegi duen informaziotik selekzio adierazgarria operatu. Baina, guzi hori kriterio zientifiko zehatzenekin.

Hala ere, autoreak, hotz-hotzean hemezortzigarren mendeko Heletan irakurtea kokatu ordez, aitzin historia laburregi batekin libururari hasiera ematen dio. Honetarako aipatu testuez gain J.B. Orpustan, J. Blot, eta Gaudeul Jeneralak "Bulletin du Musée Basque" eta "Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne" aldizkarietan erdiarora, prehistoria eta mendi gazteluez idatziak baliatu ditu.

Obraren ardatz nagusia, eta funtsean bakarra, egiten duen hemezortzigarren mendeko Heletaz gai-zerrenda aberatsa gauzatzen da. Sailkaturik hauek berezituko genituzke: Jendeak, lanbideak, erakundeak, familia, zergak, merkatu-feriak, bestak egingo lukete sistema, eta deserturrak, baxtertak, errekezioak, arrotzak, eta iraultzak egingo lukete bere birprodukzioa edo aldaketa.

Ondorio deigarrienak, irakurlea liburua dastatzera animatzeko, aipatu behar bagenituzke, ondoko hauekin geldituko gara: Heletan 1250 bizi-lagunekin herri irekia dela. Hurbileko herrientzat erreferentzi zentru delako bere merkatu-feriekin. Baina, baita ere, bertako jendeak, Konpostelako beiletan, Espainian teila egiten edo Ameriketako artzai ibiltzean gainerako munduaren berri bazeuketelako. Zeukatenez ere kanpotik bertaratu ziren saltzaile eta ofizialeen bidez.

Bestalde Nafarroako lege zaharrak beren alde zituztela oroitarazten bazuten ere, bazekitela lege horien

gainera pasatzen komeni zitzaielarik: hala nola etxezainak edo maizterrak eta emazteak ikusten ditugu herriko biltzarrean. Eta botere politikoa ez zutela bi sotesan saltzekoa, frogara hor dugu maiztarrek egin elkarrean, biltzarretatik kanpo eman nahi izan zituztelarik. Iraultza hasi eta harturiko lehen erabakiak ere estimu horren berri ematen digu: eguneko soldata 10 sotesan izango zela erabaki baitzuten, ahal bezainbat heletarrek goza zezaten bozkatzeko eskubide baliosa.

Lan mardula eta euskara freskoz landua. Irakurketa gomendatzen dugu.

Jokin Apalategi